ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2018ko abenduaren 12a, asteazkena • 143 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## KANPEZUKO UDALA

**Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantza aldatzeari**

Udalbatzak, 2018ko urriaren 2ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion zerbitzu publikoak ematearen eta administrazio jarduerak egitearen tasak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari. Aldaketa horri behin-behineko onespena ematen zion erabakia jendaurrean egon zen bitartean, haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluak xedatutakoarekin bat etorriz.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara aldaketen testuak:

“6.2 Kirol zerbitzuak.

6.2.2 Tarifak.

Mantentze gimnastika, pilates, aerobic, zumba, gap edo beste edozein jarduera, tarifa berezirik gabea:

Erroldatuak: 41 euro hiruhileko.

Erroldatu gabeak: 46 euro hiruhileko.

Aretoko dantzak:

Erroldatuak: 30 euro hiruhileko.

Erroldatu gabeak: 33 euro hiruhileko”.

6.3 Igerilekuak.

6.3.3 Aplikazio arauak.

j) Erroldatutakoen tarifa izateko, ezinbestekoa da aribidean den urteko ekainaren 1a baino lehenagotik erroldatuta egotea udalerrian.”

Santikurutze Kanpezu, 2018ko abenduaren 3a

*Alkatea*
*IBERNALO BASTERRA TXASKO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2018.12.12 06:27:02 Z